Esp. zk.: Kontu-hartzailetza1/2026

Alkatearen ebazpena, espedienteari hasiera ematekoa:

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 116. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, Alkatetzak beharrezkotzat jotzen du Oñatiko Udalaren hiru enpresa publikoren (Oñargi, S.L., Merkaoña, S.L. eta Oñatiko Ur Jauziak, S.A.) auditoretza lanak eta Udalak diruz-lagundutako hiru erakunderen (Aloña Mendi, K.E., musika banda eta Jose de Azpiazu musika eskola) hitzartutako jardunbide lanak egiteko zerbitzua kontratatzea. Prestazio hori zerbitzu kontratu batean kokatu daiteke, lege horren 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Arestian aipatutako Legearen 28.1. artikuluaren arabera, sektore publikoko administrazioek soilik beraien xede instituzionalak betetzera zuzendutako kontratuak gauzatu ditzakete.

Era berean, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duen, martxoaren 5eko, 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 213. artikuluaren arabera, toki-erakundeetan, arestian aipatutako eta hurrengo artikuluetan zehazten den hedadurarekin eta ondorioekin, beren kudeaketa ekonomikoaren barne-kontroleko eginkizunak beteko dituzte erakunde autonomoek eta haien mendeko merkataritza-sozietateek, kontu-hartzailetzako funtzioaren modalitateetan, finantza-kontroleko funtzioan (erregelamendu bidez zehazten diren erakundeen kontu auditoretza barne) eta eraginkortasuna kontrolatzeko funtzioan.

Halaber, arestian aipatutako legearen 220.1. artikuluaren arabera, finantza kontrolaren helburua toki-erakundeen, haien erakunde autonomoen eta haien mendeko merkataritza-sozietateen zerbitzuen alderdi ekonomiko-finantzarioaren funtzionamendua egiaztatzea izango da.

Horren harira, lege beraren 220.3. artikuluaren esanetan, finantza-kontrola auditoretza prozeduren bidez egingo da, sektore publikoko auditoretza-arauen arabera.

Diruz lagundutako hiru erakundeak aldiz, Oñatiko udalerrian dagoen kirol elkarte nagusia, musika banda bakarra eta musika eskola bakarra dira. Horretaz gain, diru publiko kopuru handia jasotzen dute eta herriaren interesak babesteko kontrol zehatz baten beharra dago. Guzti horrek, kontratu honen interes publiko nabarmena adierazten du.

Gauzak horrela, Udalak arestian aipatutakoa aurrera eramateko baliabide propio nahikoak ez dituela auditoretza zerbitzua kontratatu nahi du.

Horretarako, honako hau

SINAea1c3ac3-deed-4e7c-bdc5-0324a5dcd1e6

EBAZTEN DUT

LEHENENGOA: Oñatiko Udalaren hiru enpresa publikoren (Oñargi, S.L., Merkaoña, S.L. eta Oñatiko Ur Jauziak, S.A.) auditoretza lanak eta Udalak diruz-lagundutako hiru erakunderen (Aloña Mendi, K.E., musika banda eta Jose de Azpiazu musika eskola) hitzartutako jardunbide lanak egiteko zerbitzuaren kontrataziorako dagokion kontratazio administratiboaren espedienteari hasiera ematea.

BIGARRENA: Udaleko Zerbitzu Teknikoei horren berri ematea, kontratazio-prozedura arautuko duten oinarriak presta ditzaten.

SPKLren 116.4 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, txostena egingo da, honako hauek arrazoituz: lizitazio-prozeduraren aukeraketa, sailkapena, kaudimen ekonomiko eta teknikoko irizpideak, kontratuaren balio zenbatetsia, bete nahi den premia, baliabide nahikorik ez izateari buruzko txostena eta kontratuaren objektua lotetan ez zatitzeko erabakia.

Gainera, kontratua gauzatzeko beharrezkoa bada Udalak enpresa esleipendunari datu pertsonalak komunikatzea, kontratuan adierazi beharko da zein helburutarako jakinarazten diren datu horiek.

Oñatin, 2026ko irailaren 15ean

Alkateak

EKS | CSV: SINAea1c3ac3-deed-4e7c-bdc5-0324a5dcd1e6
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=05910

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Auditoretza zerbitzua-Alkatearen ebazpena espedienteari hasiera emateko
CSV/EKS:	SINAea1c3ac3-deed-4e7c-bdc5-0324a5dcd1e6

Digitalki sinatua:

Izaro Elorza Arregi
Alkatea
Data: 2026/09/15 13:52:12